

baina ezertariko erabakirik hartu gabe. Iritzien desberdintasuna ikusirik, mahain gainean uzten da.

f, **“LIÑUAREN PENAK”, A. JULIAN ALUSTIZAREN TXOSTENA;**

Villasante jaunak irakurtzen du Julian Alustiza jaunaren txostena, “Liñuaren penak” izenekoa. Liñuaren lanak euskal folklorean aztertzen ditu, langintza, giroa, hitzak ta abar. Gogoz entzun da.

g) **BAKOITZAK DAKARRENETIK:**

M. Zarate jaunak bere txostena eskaintzen du beste batzar baterako, Asturias-ko **La xiriga** hizkeran egin dituen bilketari buruz.

P. Lafitte jaunak, berak ekarri duena hurrengo batzarrerako uzten du.
J. Bilbao jaunak Ifar-Ameriketako euskaldunei buruzkoa eskaintzen du.
Ohi den otoitzarekin bukatu da batzarra.

Euskaltzainburua
LUIS VILLASANTE

Idazkaria
JUAN SAN MARTIN

1974 - XI - 29

Donostian, Gipuzkoako Diputazioan, 1974ko azaroaren 29an, arratsaldeko laurretan, bildu dira: L. Villasante buru, J. Haritschelhar buruordezko, Arrue, Diharce, Erkiaga, Irigaray, Lafitte, eta Satrustegi euskaltzain jaunak; Berrojalbiz, J. Bilbao, Fernández Setien, S. Garmendia, X. Gereño, Goikoetxea Maiza, Lizundia, Zaitegi, Zatarain eta Zumalabe euskaltzain laguntzaile jaunak, San Martin idazkari dala.

Dassance, Irigoyen, Larre, Larzabal eta Lojendio jaunak ezin etorria adiarazi dute.

Ohi den otoitzarekin hasi da batzarra.

Euskaltzainburuak G. Eppherre euskaltzain jaunaren hil-berria eman du, eta J. Haritschelhar jaunak Eppherre zenaren bizitza eta lanak laburki adiarazi ditu.

Euskaltzainburuak arautegiaren 33 eta 34. artikulua agintzen dutenaren arabea, aulki baten hutsunea agertzen du, eta berria izendatzeko, izkribuzko proposamenduaren deia egiten du.

Urriko agiria onhartzen da.

a) **HAR - EMANAK:**

A. Irigoyen jaunaren gutuna, ostiraletan Deustuko Unibertsitatean klaseak eman behar dituelako bere ezin etorria adiaraziz, eta batzarrak larunbatetara igarotzea ahal den galdeaz. Deustuko Unibertsitateko zuzendaritzara gutun bat idaztea komeni ote den aipatu da, bere klaseak ostiraletik asteko beste egun batera igarotzea eskatuaz.

Valencia-ko Unibertsitatetik Antonio Ubieta Arteta jaunaren gutuna, gure bibliotekari eta euskaltzainei "Textos medievales" liburuak eta honen inguru hasiko duen "Monumenta Hispaniae Historica" sail berria eskainiaz.

Antonio Tovar jaunaren gutuna, bera ohorezko izendatu zalako eskerrak emanaz.

HARTU DIREN LIBURUAK:

Xabier Kintanak emana, bere lizentziaturako tesina lana, **Estudio fonológico del Gero de Axular**; Patxi Goenagak, bere tesina lana, **El prefijo bait y las proposiciones causales en Axular**; **Nota Pastoral sobre el euskera** (separata del Boletín Oficial de las Diócesis de Pamplona y Tudela, N° 9, septiembre de 1974); Gero argitaldaria emanak, J. Erzibengoa eta P. Ezkiaga-ren **Euskal Literatura - III**, J.M. Arrietaren **Antso Gartzeiz** eta X. Leteren **Bigarren Poema liburu**; P. Lafittek emana, P. Ithurralderen **Idek eta Zabala** (7Gogo-Bihotzak); A. L. Villasantek bere **Palabras vascas compuestas y derivadas**; R. Bozas-Urrutiak bere **Francisco Amoros y el antiguo juego de pelota**; A. Irigarayk **Axular-en berri gutti ezagunak**, "Fontes" en separata, Etorkizuna argitaldaria Grimmen **Hansel eta Gretel**. I. Ayerbek itzulia; eta aldizkari berri hauek, "Elhuyar" I zenbakia (iraila, 1974) eta "Saioka" I lker-ek emana.

b) GOIZEKO BILERA BEREZIAREN BERRI:

Euskaltzain osoek eta hiztegi batzordekoek 8 urtera artek hiztegi begiratu dute eta 13. zerrenda onhartu; 14 eta 15garrenak urrerogako uzten dira.

Euskaltzainburuak eta idazkariak, Caja Laboral Popular-eko zuzendarien deira bildurik, elkarren artean izan dituen asmoak agertzen dituzte. C.L.P. gerturik dago euskaren sozio-linguistiko estudio bat finantzatzeko. Lan hau Hego Euskal Herriko lau probintzietan egingo litzake bi urteren epean, Euskaltzaindiaren zuzendaritza eta babespean Siadeco etxeak egiteko. Estudio honekin, non zenbat euskara egiten den, zer mailatan, zer adin, euskara ustean zer aburu duten, eutsi nahi dutenen aburuak, non eta zelako laguntzak edo eragozpenak, eta abar, tokiz-toki aztertuko lirake, gero, estudio agirien arabera zenbait erabaki hartu eta zenbait bide jokatu ahal izateko. Lan hau aurrera eramateko, lehendik antzerako lan baterako Gaur etxearekin genituen tratua utziko dira, zeren hauek diru laguntzaren faltan lana gelditu dutelako.

Siadeco S.C.I.-ekin har-emanan lana egiteko bi batzorde izendatzen dira.

a) Plangintza eta lanaren ardurapena eramateko, beren kargu eta bizilekuak kontuan izanik: Villásante buru denez, San Martin, idazkari denez, Gipuzkoa-ko har-emanetarako, Lizundia, Euskaltzaindiko bulegoko arduradun denez, Bizkaiko eginkizunetarako, Satrustegi Nafarroako eginkizunetarako eta Ruiz Urrestarazu Arabarako. b) Linguistika, informazio eta teknika arazoetarako, Mitxelena linguistikaz, Pedro Irizar geografia - linguistikaz, Mikel Lasa informatikaz eta Jon Bilbao bibliografiaz. Jaun hauek, behar den orduan, kontseilari edo laguntzaileak aurkitzen ahaleginduko dira Euskaltzaindikoaren artean.

Cinsa eta Iker etxeak Sebero Altube zenaren lan hautatuak argitaratzeko prest daude, **Erderismos** eta EUSKERA aldizkariko gerra aurreko beste zenbait lan. Euskaltzaindikoak izango lirake lanen hautatzaile. Cinsa eta Iker etxeen esku argitaratzea eta banaketa lana. Euskaltzaindiari, bere laguntzaren ordainez, salmenten ehunetik hamarrekoa gordeko digute.

J. J. Zearreta jaunak Euskaltzaindiaren alderako egin dituen diru eskarien lanen kontua agertu du.

Burugoak, urtearen lehenetik Euskaltzaindiko langile alogeratuen irabazpena begiratu du egungo egoerara jartzeko. Era berean, aseguratutako gabeak nola jarri ere bai.

d) XVIIgarren MENDEKO IOANNES HARANEDER FRAIDEA, P. Lafitte jaunaren txostena:

Gure literatura landu zaharrean bi idazle dira Haraneder izenekoak eta ez bat, orain arte uste genuen bezala. Bata fraidea eta bestea apeza. **Ejercicio Izipirituala-k**, Vinson-ek bere bibliografien dakarrenez, laurogei edizione bazituen: zaharrena 1716koa, berriena 1888koa. Geroztik 1910, 1919 eta 1922an berriz argitaratuak. Baina Vinson-ek bere bidean aurkitu ez dituenetarik badira XVIIgarren mendekoak ere. Lafitte jaunak 1690eko bat atzeman du. Lehen orrialdean aurkitzen den eskaintzako esku-izkributik agertzen denez eta urtea kontuan izanik, ez duela ikustekorik orok dakigun XVIIIgarren mendeko Donibaneko Ioannes de Haraneder deitu apezarekin, 1749an **Philotea** agerrarazi zuenarekin.

e) NEVADA-KO UNIBERTSITATEAREN "BASQUE STUDIES PROGRAM", Jon Bilbao-ren txostena:

Nevada-n artzai eta unai euskaldunen sorrera California-ko meatokietan hasten dela. California-ko meatokietara Hego-Ameriketako zenbait lekutatik langileak joan zirela meari, eta hoiien artean euskaldun asko, batez ere Argentinatik joan zirenen artean. Mea-lanetik irretzen ziren euskaldunak zer lanbidetzuk hartzen zituzten, zer bizi molde eta zertan jolasten ziren, garai hartako zenbait idazlek kontatu zutela. Irabazpenak onak zituztenez, dirua aurreratzen zutenetarik anitz, abere taldetxo bat erosi eta artzaintzara jotzen zutela meari izatea utziak. California aldean lurra garezti jartzeak ifarraldeko larretara eraman zituela eta Nevada aldean finkatu. Tarteka, J. Bilbao jaunak, zenbait pertsonaren adibideak jartzen ditu. Azkenik, Lasalt senadore euskaldunarena. Lehen herri jolasak, dantzak eta musikak bakarrik zirela, baina denborarekin eta gutti batzuen ahaleginez, azken urte hauetan kulturaz ere arduratzen direla, eta kulturagintzari ere emanak direla, batez ere gazteagoak goragoko maila bateko gaiak eskatzen hasi zirenetik. Boiseko Euskal Kulturaren Elkargoa 1971tik lanean ari dela bertan euskal kulturazko heziketak errotzeko. 1972ko udaran Ustaritzen eta Arantzazun egin zituela Unibertsitate ikasketak eta aurten Oinatira etorriak direla urte beteko ikasgoak egitera. Mitxelena jauna ere hara joateko omen da, ikastaro bat ematera.

f) ABENDUAREN 27an BILLERA IREKIA AZKOITIKO INSAUSTI JAUREGIAN:

Euskaltzainburuak aditzera ematen du, Real Sociedad Vascongada de los Amigos del País elkartekoekin hitz eginak ginen bezala, abenduaren 27.an batzar berezi irekia izango dela, programa honen barnean: 10,30etan meza, Insaustiko elizatzooan: 11-etan Eustaltzaindiaren hileroko batzar arrunta, gai hontaz. "Herri

eta herritarren izenen lehen zerrenda onartzea". 12-etan Batzar irekia, gai hauekin: Euskaltzainburuaren agurra, "R.S.B.A.P., Azkoitiko zalduntxoak eta euskara"; Pedro Irizar-en txostena, "Aditza, euskalki guztietan", Jean Haritschelhar, "Joannes Etcheberry Sarakoa Azkoitian"; J. San Martin, "Luisa Miserikordiakoa eta euskal ilustrazioa" J.L. Lizundia idazkari ordekoak Euskaltzaindiaren helduden urteko programaren berri emango du; Alvaro del Valle Lersundi-ren agurrezko hitzak. Ondorean, Valle Lersundi jaunak, hiru probintzietako euskaltzain ohorezkoei diplomak ematea: Odón Apraiz arabarrari, Isaac López-Mendizabal gipuzkoarrari eta Gabriel Manterola bizkaitarrari. Gero, 1974an esaminatuei Euskal irakasle tituluak ematea, eta ondorean, 14, 30-etan, anaitasunezko bazkaria.

g)EUSKALDUNON KOLOREAK, P. Larzabal jaunaren txostena:

Pierre Larzabal jaunaren txostena J. Haritschelhar jaunak irakurria, euskaldunen koloreei buruz. Esaera zaharretan, folklorean eta euskaldun ororen gogoe-tan hiru kolore direla soilik, beste gutti batzuen gainetik: zuri gorri eta beltz. Eta hontaz adibide ugari eman ditu.

h)BAKOITZAK DAKARRENETIK:

Julia Berrojalbiz euskaltzain laguntzaile andereak Portugaleteko euskaltza-leen eskaria agertzen du, beren herriko alkateari eskertzeko dutun bat idaztea ikastolen alde egiten ari den lanagatik. Kunplimenduzko gutun bat idaztea erabaki da.

Irakasle tituluen etsamainen berri eman da, Deustuko Unibertsitatean ongi pasatu dutenen zerrenda agertuaz: Patxi Erkiaga Lasa, Kristina Usobiaga Guisado, Bittor Egurrola Albizu, Francisco de Broja Barandiaran Prado, Jesus Migel Zabalo Bilbao, Julian Angel Zabalo Bilbao, Iñaki Lerga Idozin, Joseba Agirreazkuenaga, Ana Elgezabal Legarreta, Guillermo Etxebarria Garitazelaia, Fernando Etxebarria Mariezkurrena, Markos Olabari Zurinaga, Imanol Olabari Zurinaga, Arantza Allur Zunzunegi, Alfredo Herbosa López, Miren Azkarate Villar, Hendrike Knörr Borrás, Josu Cepeda Olalla, Xabier Bilbao Barrena, Adolfo Arejita Oñarte-Etxebarria, Juan Felix Elorrieta Arronategi, Koldo Zuazo Zelaieta, Jexux Aipurua Barandiaran, Joseba Etxebarria Uriarte, Begoña Urrutia Zallo-Etxebarria, Mikel Alkorta Andonegi, Karmen Etxebarria Uriarte, Jose Antonio Iñurritegi Beristain, Juan Luis Urmenea Galparsoro, Luzio Agirre Enparan, Xanti Garmendia Olano, Joxe Antonio Agirretxe Arruti, Jose Antonio Arin Agirre, Gema Larrañaga Juaristi, M^a Dolores Aginaga Gezuraga, Errubén Egaña Zumeta, Javier Ortuzar Uribe (hau Basaurin etsaminatua), Asun Rekalde Basterretxea.